



2024-2025 IKASTURTEAN EUSKARA IKASTEKO KURTSOAK EGIN DITUZTEN 16 URTETIK GOITIKO ANTSOINDARREI DIRUZ LAGUNTZEKO DEIALDIAREN OINARRIAK

DEIALDIAREN XEDEA

Deialdi hau Antsoaingo Udalaren 2025-2027 aldirako Dirulaguntzen Plan Estrategikoaren barruan dago (2025eko otsailaren 27ko NAO, 40. Zk., eta Antsoaingo Euskararen Ordenantzak 26. artikuluan dioena betez, Udal honek Antsoainen bizi eta errolatuak dauden pertsoneri diruz lagundu nahi die euskara ikasteko ahaleginean, hala ikastaro trinkoetan, estentsiboetan nola barnetegietan. Izan ere, euskara gure herriko hizkuntz ofiziala izanik, antsoaindar guztiek dute ezagutzeko eta erabiltzeko eskubidea, ahalik eta baldintza errazenetan, ahalmen ekonomikoa haientzako eragozpen bat izan gabe.

DIRULAGUNTZAREN FINANTZATZIOA

1. Antsoaingo Udalak 1 335004820002 "EUSKARA IKASTEKO DIRULAGUNTZAK" izeneko partida du onartua 2025eko Aurrekontuetan, 5.000,00 euroko horniduraz, euskara ikasten ari diren antsoaindar helduei ahalegin horretan laguntzeko. Bertatik finantzatuko da dirulaguntza-deialdi hau.

DIRULAGUNTZA JASOTZEKO BALDINTZAK

2. Deialdi honetan parte ahal izateko, eskatzaileek euskara ikastaroren bat burutu behar izan dute 2024ko ekainaren 1a eta 2025eko maiatzaren 31a bitartean.
3. Eskatzaileak antsoaindarrak izanen dira, hau da, Antsoainen bizi eta errolatuak egonen dira eskaera egiten denean eta ikastaroa burutu den tartean zehar.
4. Eskatzaileak 16 urtetik goitikoak izanen dira.
5. Dirulaguntza jaso ahal izateko, eskatzaileak egiaztatu beharko du ikastaroko euskara-eskoletara % 80 gutxieneko asistentzia izan duela.
6. Eskatzaileak egunean izan beharko ditu Antsoaingo Udalarekiko zerga-betebeharrak.

LAGUNDUKO DIREN IKASTAROAK

7. Diruz lagunduko diren ikastaroak honako mota hauetakoak izan daitezke: estentsiboak (astean zehar ordu kopuru bat egun desberdinetan banatua), trinkoak (egunean lau ordu edo gehiago, hainbat egunetan zehar) edo barnetegiak (egun batzuk etxetik kanpo, euskara ikasteko eta erabiltzeko bereziki prestatutako tokietan).
8. Dirulaguntza honetatik kanpo geratuko dira autoikaskuntza ikastaroak eta on-line bidez egindakoak.

DIRULAGUNTZA KOPURUA



9. Onartutako eskaera bakoitzari emanen zaion dirulaguntza-kopurua izanen da hark matrikulagatik ordaindutako kantitate bera, beste erakunde ofizialetatik jasotakoa (Euskarabideatik, erraterako) deskontatua.
10. Eskatzaileak Euskarabideari ikastaro beragatik dirulaguntza eskatu izan ez balio, matrikularen % 40 jasoko du, salbu zentro publiko ofizialetan ikasi badute, Nafarroako Hizkuntz Eskola Ofiziala edo Zubiarte euskaltegia, besteak beste.
11. Dirulaguntza kopuruak ezin izanen du 800 euro baino gehiagokoa izan eskatzaile bakoitzarentzat.
12. Dirulaguntza guztien kopuruak, osotara, aurrekontuko partidaren dotazioa gaindituko balu, falta den diferentzia eskakizun guztien artean banatuko da modu proportzionalen.

ESKAERAK AURKEZTEKO DATAK, BIDEAK ETA AGIRIAK

13. Eskaerak aurkeztu ahalko dira 202eko ekainaren 1etik uztailaren 20ra, biak barne.
14. Dirulaguntza eskaerak honako bide hauetatik edozein erabiliz aurkeztu ahalko dira:
 - 13.1. Modu telematikoz, udalaren egoitza elektronikoaren bidez:
<https://sedeelectronica.ansoain.es>
 - 13.2. Aurrez aurre, Antsoaino Udalaren bulegoetan (udaletxe plaza, 1 – Antsoain)
astelehenetik ostiralera, 8:30etik 14:00etara.
15. Eskatzaileak honako agiri hauek aurkeztu beharko ditu:
 - Eskabide-orria, alkateari zuzendua, deialdiari atxikitutako eskaera-ereduaren arabera.
 - Ikastaroaren matrikula ordaindu dela erakusten duen bankuko transferentzia-agiria.
 - Eskatzailearen kontu-zenbakia.
 - Eskatzailearen NANen fotokopia.
 - Ikastaroko klaseetara bertaratu izanaren egiaztatzea, ikastaroa ematen duen erakundeak sinatua, bertan ikasleak izandako asistentziaren portzentajea argi adierazten dela.
 - Euskarabideari ikastaro beragatik dirulaguntza eskatu izanaren agiria.
15. Eskatzaileak ez du dirulaguntzarik jasoko, lehenago maila bereko ikastaro bera egiteagatik Udal honen dirulaguntza jaso badu.

ESKAEREN ONARPENA

16. Aurkezteko epea bukatuta, Euskara Zerbitzuko arduradunak txosten bat egingen du zeinean aurkeztutako eskakizun guztiak, onartutako eta baztertutakoen zerrenda eta bakoitzari dagokion dirulaguntza-kopurua azalduko diren.
17. Aurkeztutako eskaeren arteko baten batek ez balitu beteko deialdi honetan ezartzen diren betekizun guztiak edo agiri guztiak ez balitu aurkeztu, interesdunari eskatuko zaio akatsa zuzentzeko gehienez ere hamar eguneko epe luzaezinean, eta ohartaraziko zaio, hala egin ezean, eskaera bertan behera utzi duela ulertuko dela.



18. Euskara Zerbitzuko txostena jaso ondoren, Antsoaino Udaleko Gobernu Batzordeak eskaera bakoitzaren dirulaguntza-kopurua onartuko du.

EBAZPENA JAKINARAZTEA:

19. Dirulaguntza emateko ebazpena honako bide hauen bidez argitaratuko da: Antsoaino Egoitza Elektronikoaren iragarki-taula eta Dirulaguntzen Datu-base Nazionala (Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 18.2 artikuluan adierazitakoarekin bat etorritik, aipatutako lege-testuaren 20. artikuluan ezarritakoaren arabera).

ARAUDIA

Deialdi hau dokumentu honetan jasotako oinarriek arautuko dute, eta, bertan aurreikusi ez denerako, araudi honetan ezarritakoak:

- Antsoaino Udaleko Euskararen Erabilera eta Sustapena Arautzeko Ordenantza.
- Antsoaino Udalaren 2024ko aurrekontua gauzatzeko oinarriak.
- Antsoaino Udalaren dirulaguntzak arautzen dituen ordenantza orokorra.
- 11/2005 Foru Legea, Dirulaguntzei buruzkoa.
- 38/2003 Lege Orokorra, Dirulaguntzei buruzkoa, eta 887/2006 Errege Dekretua (Erregelamendua).
- Nafarroako Toki Administrazioari buruzko 6/1990 Foru Legea.
- 2/1995 Foru Legea, Nafarroako Toki Ogasunei buruzkoa.

ERREKLAMAZIOAK

Ebazpen horren kontra errekurtsio hauetako bat jar daiteke:

- Berraztertze errekurtsioa, deialdia egin duen organoari zuzendua, hilabeteko epean, ebazpen hau jakinarazi eta biharamunetik hasita.
- Administrazioarekiko auzi-errekurtsioa, Nafarroako Administrazioarekiko Auzien Epaitegiari edo Salari zuzendua, bi hilabeteko epean, ebazpen hau jakinarazi eta biharamunetik hasita.
- Gora jotzeko errekurtsioa, Nafarroako Administrazioi Auzitegiari zuzendua, hilabeteko epean, ebazpen hau jakinarazi denetik hasita.